

## XX. MENDEA ETA GERRA ARTEKO GARAI

- *Mundua Amerikako Estatu Batuetan*
- *Mundua Europan*
- *Mundua Errusian*
- *Mundua Espainian*

Sarrera :

XX . mendea oso korapilatsua izan zen mundu osoan. Gatazkaz beteriko garai iluna izan zen. Bi gerrate mundial eman ziren , jakina den bezala.

Lehenengo gerra mundialaren eta bigarrenaren arteko garaiari , "interbellum" deritzogu , eta 1918 tik 1939. urte bitarteko urte bitarteetan luzatu zen.

(1918ko azaroak 11 tik , 1939ko irailak 1 bitartean)

Aurreko gaietan , landu izan dugun bezala ,munduko kontinente eta herrialdeetan , ezaugarri ezberdinak izan zituen garai honek.


Funtsean , I. gerra mundialaren ostean sortutako demokrazia liberalen porrotak eta erregimen totalitaristen finkapenak izan ziren gertaera aipagarrienak.

*Gogora dezagun:*

- Gerra Handiaren ondoren, ekonomia arloko mundu nagusitasuna Erresuma Batutik Estatu Batuetara aldatu zen. Dakigun bezala, Europako ekonomiak bakera berregokitzeko prozesua luzea eta zaila izan zen ,bai gerrak eragindako hondamendiagatik ,bai inflazioagatik eta bai langabeziaren hazkundeagatik ere.
- Krisialdia bereiziki izan zen handia Alemanian ,gerraren kalteak ordaindu behar izan baitzituen. Hala ere, 1924. urtetik aurrera ekoizpena hasi ,langabezia murriztu eta bizi kalitatea hobetu egin ziren Europako herrialdeetan. Susperaldi hori ,Estatu batuek emandako diruari esker gertatu zen. Laster bukatuko zen.

### *ZER GERTATU ZEN AMERIKAKO ESTATU BATUETAN?*

Bereiziki Estatu Batuetan ,1922. eta 1923. urteen artean industria asko hazi zen . Automobilgintza ,etxeresnagintza eta industria elektrikoa zein petrokimikoa asko garatu ziren kateko lanari esker. Ekoizpen estandarizatuari hasera eman zitzaion eta honi esker enpresa talde handiak sortu ziren. Eraikuntzak ere garrantzi handia hartu zuten.



*Irudi honetan, Ford, automobilgintzan, kate lana martxan jarri zuen lehenengoa. "Fordismo" izenez ere ezagutzen da lan egiteko modu hau.*

*Orain, lehenengo aldiz langileak ez du produktu bat hasieratik bukaeraraino egingo baizik eta dagokion "pieza" burutuko du.*



*Eraikin handien sorrera Estatu batuetan.*



*Bizi kalitatea hobetu egin zen. Kontsumo gizartea sortu zen. Epekako erosketak nagusitu ziren eta azken hawei esker, lehen aberatsek soilik erosi zitzairenen produktuak jende gehiagorentzat eskuragarriak bilakatu ziren. Horretarako sortu zen publizitatea. Bizimodu amerikarra mundu osora hedatu zen, "urte zoriontsuak" ziren.*

*Aisialdia sortu zen, zinema, kabaretak, masa kirolak, prentsa, irrati... Bizimodua errotik aldatu zen.*

*Bizi modu hau Estatu Batuetan eman bazen ere, Gainerako Europako herrialdeetan eragin itzela izan zuen.*

*Aipatu dugun bezala, gerrak pobretuta utzi zituen herri gehienak .... Ordea, 1924. urtean, Dawes plana martxan jarri zuten Estatu Batuetan:*

*Honetan zetzan:*

*Estatu batuek mailegu bat emango zion Alemaniari, hark aliatuekin zituen zorrak ordain zitzaizkien (gogora dezagun, Alemania gerraren erantzule deklaratu zutela Parisko bakean eta isun handiak ordaindu behar zituela.)*

*beraeen, aliatuek, Estatu Batuei ordaindu ahal izango zitoten.*

*Egoera hau 1929.urtean ohertu zen. Krisialdi bat sortu zen. Krisialdiaren kausak bi izan ziren :*

*Gaiekoizpena: Beharrezkoak ziren produktuak baina gehiago sortzeagatik.*

*Espekulazioa: Erositako prezioa baina garestiago saltzen ziren akzioak*

*Itxurak eta errealtatea (Krisiaren zergatiak):*

*20ko hamarkadan, Aipatu dugun bezala, kontsumorako ondasunen eta publizitatearen hazkundea gertatu zen, baina operotasun hura itxura besterik ez zen:*

- Behartsu ugari zegoen: errenta altuak zeuden eta maizter asko lurrak utzi beharrean izan ziren.*
- Beltzek hegoalde eta erdi-mendebaldean zapalduta segitzen zuten. Ku Klux Klanen erasoaren beldur bizi ziren, haiek judu, katoliko nahiz atzerritarrei egiten baitzuten eraso.*
- Langabeak herrialde osora hedatu ziren. Lan bila bidaiatzen zuten trenean, dohain.*
- Edari alkoholodunak debekatzea AEBtako ohiturak garbitzeko xedean hartutako neurri izan zen, baina ustelkeria eta gangsterismoa ugaltzea eragin zuen.*



### Porrota:

- Jazz garaiko amerikar gehienak maileguei esker bizi ziren eta, zorakeria ugari burutuz, inoiz baino "aberatsago" ziren.
- Baina, 1929ko urriaren 24an, Ostegun Beltza etorri zen: balore merkatuak porrot egin zuen eta oparotasunaren egitura ahula erabat deuseztatuta geratu zen.
- Denda eta industriak itxi egin ziren eta milioika pertsona geratu zen lanik gabe. Oparotasunaren garaia bukatuta zegoen eta Depresio garaia etorri zen. AEBk eta mundu osoa 10 urtez geratu ziren itota eta estatubatuarrak ez zuten Rooseveltten New Deal-a arte burua altxatuko.



### Bideoa: Roosevelt eta New Deal-a

#### Roosevelt eta New Deal-a

AEBetako egoera: Hogeita hamargarreneko hamarkadaren hasieran AEBetan Depresio Handia izan zen eta horren eragina latza izan zen: ia gizartearen laurdena lanik gabe geratu zen eta hiri eta herrietan pobrezia arazo gero eta larriagoa zen. Ez zegoen inongo laguntzarik gobernuaren aldetik.

Roosevelt: 1933an iritsi zen lehendakari zara Franklin Delano Roosevelt. Alderdi Demokratiko senadore zen eta, polioak jota egon arren, kanpaina politiko indartsua burutu zuen eta amerikarrei New Deal-a edo akordio berriaren promesa egin zien: Nire ustez, beldurrari bakarrik izan behar zaien beldur.

### New Deal-a:

- *Sutondoko solasaldietan hitz egiten zuen bere politika asmoak azaltzen eta milioika amerikarrek jarraitzen zioten.*
  - *Banka eta finantza sistemaren erreformari ekingo zion.*
  - *Nekazaritzako Doikuntza Akta (AAA) jarri zuen martxan, ekoizpena murrizten zitzaizen nekazariei dirulaguntzak emanaz.*
  - *Langabeziaren arazoari irtenbideren bat aurkitu nahian, Obra Publikoak Garatzeko Administrazioak lanpostuak sortu zituen errepideak, zubiak, ospitaleak eta ikastetxeak eraikitzeko lanetan.*
  - *Kontserbazio Zibilerako Gorputzak milaka gazte langabeturi eman zien lana utzita eta pobretuta zeuden lurrak berreskuratzen. New Dealaren helburu nagusienetako bat lurraren kontserbazioa izan zen eta arrakasta handienetako bat Tennesseeko Haraneko Autoritatea ezartzea izan zen: garraiorako nabigagarri ziren kanal eta dikeak eraiki ziren, ur eta elektrizitate merke hornitu zuen harana...*
  - *Berreskurapen Nazionalaren Administrazioak milioika amerikarren lan baldintzak hobetzea zuen helburu.*
- Arerioak: Plan hauekin herria bereganatzea lortu zuen, baina bazituen arerioak ere. Protagonismo nahia eta botere gehiegi izatea aurpegiatzen zioten. Baina arerioek ez zuten indar handirik eta, 1936ko hauteskundeetan, berriro Rooseveltek irabazi zuen.*
- New Dealaren porrota: Hala ere, New Deal-a indarra galtzen hasi zen:*
- *Langabezia hobeto zegoen, baina goian mantentzen zen.*

- Auzitegi Gorenak New Dealaren programa batzuk konstituzioaren aurkakoak zirela jo zuen eta, hori gutxi balitz, lehendakaria erdi mailako klaseen laguntza galtzen hasi zen.
- 1937 eta 1938an, herria Depresiotik ateratzen ari zela ematen zuenean, errialdia izan zen berriro eta langabeziak gorantz egin zuen.

## ETA BITARTEAN, ZER GERTATZEN ARI ZEN EUROAPAN?

Europan 3 gertaera politiko nagusi izan ziren:

- Demokrazien krisia.
- Faxismoen gorakada.
- Sobietar iraultza finkatzea.

### Demokraziak eta diktadurak gerra arteko aldian

Bi mundu gerren arteko aldian (1919-1939), Europan hasieran sistema demokratikoak ezarri ziren. Hogeiko hamarkadan sinaturiko nazioarteko akordioek, itxuraz behintzat, bake iraunkorraren oinarriak finkatu zituzten. Hala eta guztiz ere, hamarkadaren erdialdetik aurrera, estatu demokratiko asko krisian sartu eta diktadurak ezarri zituzten.

### Demokraziaren gorakada eta krisia

Demokraziak ugaritzen: Lehen Mundu Gerra amaitu zuten bake itunen eraginez, Europan estatu berriak sortu ziren eta nazio independenterik gehienetan erregimen nagusia demokrazia izan zen. Gizonezkoen sufragio unibertsala ere estatu askotan hedatu zen eta, herri batzuetan, emakumeen sufragioa ere ezartzen hasi ziren.

### Demokrazia ez dena

- Demokrazia zalantzan jartzen zuten joera ideologiko batzuk ere agertu ziren eta sistema parlamentarioa kritikatzeko zuten, estatuaren batasuna ahultzen zuelako. Alemanian, Frantzia eta Italian ikus dezakegu hau.

1929 krisialdiak demokraziarekiko eta alderdi tradizionalerekiko mesfidantza eragin zuen herritarrengan, izan ere alderdi haiei leporatzen baitzieten egoeraren errua. Gizarteko erdi mailako klaseak eta goi burgesiak eskuin muturreko alderdien alde egin zuten, uste baitzuten alderdi moderatuenean ezin izango zituztela beren herrialdeak krisialditik atera eta horren ondorioz iraultza komunista bata etorriko zela.

1929: 1929an, Alemania industrialak mundu mailako Depresio Handiaren eraginak jasan behar izan zituen eta, 1932 amaieran, 6 milioi langabetu zeuden. Etsipen hartan, arazo izugarriak konpontzeko bide errazak eskaintzen zituzten alderdi politikoak guztiz erakargarriak ziren gero eta jende gehiagorentzat. Asko alderdi komunistako kide egin zen, beste batzuek bandera nazia atzean desfilatzen zuten...

- Horregatik, herrialde askotan, ideologia faxistako alderdiak sortu ziren.
- Ideologia nazionalista eta autoritario horien beste aldean ezkerreko muturra zegoen; horiek Errusiako Iraultzaren adibideari jarraituz, "proletarioen diktadura" ezartzea aldarrikatzen zuten. Alderdi komunistak ziren, alderdi sozialistetatik ateratakoak; horrek ezkerreko marxismoaren zatiketa eragin zuen eta langile mugimendua ahuldu egin zen.



### Demokrazien gainbehera

- Laster bukatu zen demokrazien kopurua ugaritze hori eta demokraziek atzera eta diktadurak aurrera egin zuten:
- [Mussolini](#) Italian 1922an.
- [Primo de Rivera](#) Espainian 1923an, eta Portugalen, Grezian, Polonian eta abar ere bai. Ondorio izugarriak izango dituen Alemaniakoa izango da.
- Erregimen demokratikoei herririk garatuenean soilik iraun zuten: mendebaldeko eta iparraldeko Europan, Ipar Amerikan, Australian eta Zeelanda Berrian.

Hona hemen, herrialdez herrialde:

### Frantzia

- **Ekonomia:** Frantziari gerrak kostu itzela ekarri zion, materialen eta gizakien aldetik, Alemaniaren aurkako borrokalari nagusia izan baitzen.
- **Politika**
  - Ezegonkortasun politikoak (1932 eta 1934 bitartean 5 gobernu izan ziren!) eta krisi ekonomikoaren ondorioek parlamentuen aurkako taldeak sortzea eraztu zuen.
  - Muturreko eskuinak istilu larriak eragin zituen herrian, eta, horren eraginez, ezkerreko muturreko indarren erreakzioa iritsi zen; horrela, Fronte Popularra sortu zen, hau da, faxismoaren aurkako aliantza. Fronte Popular honek irabazi zituen 1936ko hauteskundeak.
- Langileen aldeko hobekuntzak dekretatu ziren gizartean eta lanean; baina gobernu horrek bi urteko iraupena baino ez zuen izan, eta gero, Fronte Popularra deseginda geratu zen.

### Erresuma Batua

- **Ekonomia:** Industria zaharritua zuen eta atzerapena eragin zion. Horrek langabeziaren gorakada eragin zuen eta [1929ko krisi ekonomikoaren](#) ondorioek, gainera, larriago bihurtu zuen egoera hori.
- **Politika:** Alderdi Laboristaren (sozialista) garrantzi gero eta handiagoak langileen interesen defentsa bermatzen zuen. Alderdi kontserbadorearen eta alderdi laboristaren arteko lehia baketsua izan zen.

- **Irlanda:** Ingelesen menpe, Irlandak gatazka larriak izan zituen, independentzia lortu nahi zuten nazionalisten eta armada nahiz polizia britainiarren artean. 1919ko hauteskundeetan, Irlandaren independentziaren aldeko diputatuek ez zuten Britainia Handiko parlamentuan parte hartu nahi izan, eta Irlandako parlamentua sortu zuten Dublinen, independentzia aldarrikatu zuten parlamentua. Erresuma Batuak hasieran indarra erabili zuen; baina 1921ean, [Irlandako Estatu Askea](#) onartu zuen. Ulsterrek (Ipar Irlanda), gehiengo protestantea zeukan eta probintzia britainiarra izaten jarraitu zuen, eta, horren ondorioz, batzuen eta besteen arteko gatazkek gaur egunera arte iritsi dira.

### **Italia** Gerra Handiaren ostean

**Arazoa:** Nahiz eta aliantza garailearen barruko kidea izan, Italia haserre irten zen [Gerra Handitik](#). Gerran sartzeko era guztietako promesak egin zizkioten arren, lurralde hedapenari buruz zituen itxaropenak ez ziren bete. Biztanlerik gehienek galdutako gizakiek eta materialek ez zutela beharrezko konpentsaziorik jaso uste zuten.

**Krisiak:** Krisi moral horrekin batera, egoera politikoa, ekonomikoa eta soziala oso larria zen eta horrek sistema demokratikoaren aurkako kritikak eragin zituen. Egoera ekonomikoa oso txarra zen, eta, soldatek produktuak eskuratzeko ahalmena galtzean, langabeziaren gorakada ere kontuan hartuta, langileak eta sindikatuak protestatzen hasi ziren. Italian, 1919an eta 1920an, grebak, hirietako altxamenduak, fabriken okupazioak, landa inguruko lurren okupazioak eta matxinadak egon ziren. Gizartearen barruko krisia gero eta handiagoa zen, eta ehunka hildako egon ziren langileen eta poliziaen arteko gatazketan.

**Alkandora Beltzak:** [Benito Mussolini](#) sozialista izandakoa, Italiak Gerra Handian parte hartzearen aldekoa zen. 1919an Fasci Italiani di Combattimento izenekoak sortu zuen eta alderdi horretako kideei, janzkeraren kolorea zela-eta, "alkandora beltzak" esaten zieten. Hasieran, Mussoliniren ideiek oihartzun mugatua izan zuten baina alderdiko militanteak, "eskoadrakoak", oso aktiboak ziren ezkerreko mugimendu sozialaren (sozialistak eta komunistak) aurkako gatazketan, eta eraso bortitzak egiten zituzten grebalarien, manifestarien eta ezkerreko egoitza sindikalen nahiz politikoen aurka.

**Nagusiak:** [Errusiako Traultza](#) sorberriaren adibideak eta langileen mugimenduak beldurra eragiten zuten erdiko eta goiko klaseetan eta, horien ustez, eskoadrakoek tresna egokia osatzen zuten langile mugimendua geldiarazteko eta ordena publikoa berrezartzeko.

**Alderdi Nazional Faxista:** 1921ean, fascio zeritzenezatik [Alderdi Nazional Faxista](#) sortu zen, muturreko programa politikoarekin eta alderdi horrek berehala lortu zuen patronalaren finantziazioa eta erdiko klaseen laguntza politikoa.





*Mussolinik agintea eskuratu zuen.*

**Erromako Martxa:** Alderdi faxistaren indarra gero eta handiagoa zela ikusita, eta gizarte talde indartsuen laguntzak kontuan hartuta, Mussolinik agintea eskuratzeko mehatxua egin zuen. 1922ko urriaren amaieran, militanteek Erromako Martxa egin zuten, Gobernuua ordena segurtatzeko gauza ez zela eta Italiako politikari berriak behar zirela esanez. Gobernuua faxisten ekintzei aurre egiten saiatu zen, baina Viktor Emanuel III.ak ez zion horretarako baimenik eman. Hori ikusita, Gobernuak dimititu egin zuen, eta erregeak Mussolini lehen ministro izendatu zuen. Mussolinik, agintea eskuratzeko prozesuan, Koroaren eta Armadaren babesa izan zuen.

**Demokrazia:** 1924 arte, Mussolinik itxuraz legalitate demokratikoa mantendu egin zuen, baina apurka-apurka, diktadura bihurtzen ari zen.

**Matteotti:** 1924an hauteskundeetarako deia egin zuten eta Mussolinik botoen %65 lortu zuen. Matteotti diputatu sozialista zen eta zenbaketaren faltukeria salatzen zuen. Handik egun batzuetara, bahitu eta hil egin zuten. Horrela, faxismoari gero eta oposizio gutxiago egingo zitzaion.

**Ezkerreko protestei erantzuna:** Ezkerraren protestaren ondorioz, Mussoliniren posizioa kolokan geratu zen, baina horrek, berritza ere, erregearen babesa izan zuen. Mussoliniren erantzuna bere agintea indartzea izan zen, eta, prozesu horren ondorioz, 1926an diktadura finkatu zuen: alderdi politikoak abolitu, prentsan zentsura gogorra ezarri eta aurkari politikoak jazarri egin zituen.

### *Estatu faxistaren oinarriak*

- *Estatu totalitario izena eman zion, guztiena eta guztientzat zelako.*
- *Liberalismoa eta marxismoa baztertu, hirugarren bidea izan nahi zuen.*
- *Erromatarren Inperioaren herentzia historikoa berpiztu zuen, Italia berriaren handitasunaren erakusgarritzat, eta aginte absolutuaren iturburua izan zen.*
- *Ducek beti dauka arrazoia zen irizpide eztabaidaezina.*

### *Alderdi Nazional Faxistaren Tresnak*

- *Erakunde faxistak Estatuko erakunde bihurtu ziren eta administrazio osoa kontrolatu zuen, beste alderdi batzuetako militanteak eta aldekoak bertatik urrunduz. Alderdia eta Estatua nahasi egiten ziren.*
- *Propaganda indartsuaren eta hezkuntza kontrolatzearen bidez, faxisten idealak gazteen artean zabaltzen zituzten.*
- *Erakunde berrien eraginez, herritarrik gehienak gazteriari, kirolari, aisialdiari eta abarri lotutako erakundeetan sartzen ziren.*
- *Ados ez zeudenak jazarri egiten zituzten, polizia politikoaren edo auzitegi berezien bitartez, eta, azkenean, espetxean sartzen zituzten, edo urruneko eskualdeetara edo erbestera bidali.*

### *Faxismoaren lana*

**Legitimitate nahia:** Faxismoak gizartearen onospena lortu nahi zuen, herrian adostasun zabala zuten neurriak ezarrita. Mussolinik Italiako herriaren aurrean bere burua legezkatzat hartzea nahi zuen, hobekuntza ekonomiko handiak eragiteko moduko kudeaketa eraginkor baten bidez.

### *Ekonomia*

- *Herrilan handiko politika aplikatu zuen. Italiak galdutako handitasuna berreskuratzeko asmoz: autobideak, eraikin handiak, eskualde osasungaitzen saneamendua, trenbide sarea hobetzea, hiriak egitea (adibidez, Latina), eta abar.*

- Industria sustatu zuen, atzerriko lehiaren aurkako babes neurriak eta autarkia eta bertako produkzioaren garapena aplikatuz.
- Hala eta guztiz ere, bi- mailak behera eta langabeziak gora egin zuen.

### Gizartearen arloan

- Korporatibismoa, hau da, nagusien eta langileen arteko adostasun doktrina. Estatua gatazken bitartekaria zen, eta, horrela, bi gizarte indarren arteko liskarrak gainditu nahi zituen.
- Egia esan, korporatibismo hori dela medio, langileen klasea ekintza sindikalik gabe geratu zen.
- Hala ere, erregimen faxistak langileen artean ospea lortzea ahalbidetu zioten neurri sozialak sartu zituen: gizarte segurantza, laneko oporrak, aisialdirako jardueretan ziharduten erakundeak eta abar.

### Letraneko Itunak

- Faxismoaren lehenengo arrakastetariko bat Vatikanorekin 1929an Letraneko Itunak sinatzea izan zen. Akordio horien bitartez, 1870ean, Italiako erreinuak Eliz Estatuak okupatu zituenean piztutako Italiarekin eta Vatikanoren arteko liskarrak amaitu ziren.
- Letraneko Itunetan, Aita Santuari Vatikanoko estatu berrian zeukan subiranotasuna onartu egiten zitzaion.
- Gainera, Elizari lurraldea galtzeagatik konpentsazio ekonomikoa ematen zitzaion eta hezkuntzan eginkizun garrantzitsua onartzen zitzaion.
- Akordio horri esker, Musselini italiar katoliko asko bereganatu zuen.
- Hala eta guztiz ere, popolari zeritzuten alderdi katolikoa erregimenaren kontra zegoen, eta Musselini euren aurka eskoadretakoak bidaltzeko mehatxua egin zuen, baldin eta Vatikanok erakunde katolikoek kritikak amaitzen ez bazituen.

*Balorazioa:* Hogeita hamarreko hamarkadaren erdialdean, diktadura faxista sendo finkatuta zegoen, eta Musseliniren nazioarteko politika herri askok onartzen zuten. Baina Italiaren betiko ahultasun ekonomikoa ez zen gainditzera lortu eta herrilan handien eta erregimenarekiko atrikipen adierazpen zaratatsuen atzean, herri atzeratu eta garapen ekonomiko urrikoa ezkutatzen zen. Muga horiek handik urte batzuetara geratu ziren agerian, Italia Bigarren Mundu Gerran sartu zenean.

### **Alemania** Weimar errepublikaren garaian

*Aurka:* 1918ko azaroaren 9an, Alemaniako Errepublika aldarrikatu zen. Baina errepublika horrek aurkaritza bikoitzari egin behar izan zion aurre.



- Espartakistek iraultza boltxebikea sustatu zuten, baina iraultza horiek ez zuten arrakastarik izan eta buruzagi nagusiak (Rosa Luxemburg eta Karl Liebknecht) hil zituzten. Harrezkero, Alemaniako alderdi komunista indartsua Errepublikak berriaren aurkakoa izan zen.
- Eskuina ere Errepublikaren aurkakoa zen, gobernari demokratikak traidoreak zirelakoan, Versaillesko Ituna sinatu zutelako.

Weimar Errepublika: Izen hori jarri zioten Alemaniako erregimen demokratikoari, Konstituzio berria hiri horretan idatzi zelako.

Arazoak: Oinarri politiko mugatua zeukan (zentrokoak eta sozialdemokratikak) eta arazo oso larriei egin behar izan zien aurre:

- Versalleseko Itunak zuen ospe txarra.
- 1922 eta 1923ko hiperinflazioa.
- 1929ko krisi ekonomikoa eta langabeziaren igoera.

Hauteskundeak: Krisi ekonomikoari krisi politikoa erantsi zitzaion:

- 1930eko hauteskundetan, alderdirik erradikalenek (naziek eta komunistak) botoen herena lortu zuten.
- 1932ko hauteskundean botoen erdia.

1933: Nazien alderdiko buruzagia, Adolf Hitler kantzelari izendatu zuten, eskuineko eta zentroko alderdiek lagunduta, horien ustez nazismoa euren aliatua baitzen komunismoaren aurkako borrokan. Kontserbadoreek beranduegi ulertu zuten naziek ez zutela agintea utziko.

*Nazioarteko distentsioa hogeiko hamarkadan*

*Kalte ordainak*: Hogeiko hamarkadan sinaturiko nazioarteko itun batzuek behin-behineko bakearen oinarriak ezarri zituzten. Baina estatuen arteko harremanak gauza batek oztopatzen zituen: Alemaniak Versalleseko itunean jasotakoaren arabera ordaindu beharreko kalte ordainak. Zama ekonomiko ikaragarri horrek ondorio oso txarrak izan zituen Alemaniako ekonomian. Kasurik larriena, izan ere, frantsesek Ruhr ibaiaren arroa okupatzea izan zen, Alemania zorrak ordaintzera behartzeko. Herriaren hondamendia osoa zen, eta, horrela, ezinezkoa zen ordaintzeko ezarritako epeak betetzea.

*Berrikuspena*: Alemaniaren egoera ekonomiko horren eraginez, kalte ordainen berrikuspena egin zen. Bi planek, Dawes planak eta Young planak murriztu egin zituzten Alemaniak ordaindu beharreko zenbatekoak.

NE: 1926an, Alemania Nazioen Ligan onartu zuten.

*Demokraziaren porrota. Faxismoa*

*Faxismoaren ezaugarri nagusiak*

*Gerra arteko joera politikoak*: Europan 3 gertaera politiko nagusi izan ziren:

- Demokrazien krisia.
- Faxismoaren gorakada.
- Sobietar iraultza finkatzea.

Lehenengo biak elkarri lotuta daude, demokrazien gainbeherarekin batera faxismoaren eta diktaduren hedapena iritsi baitzen.

*Faxismoa:* Hitza [Mussolinik](#) 1919an sortutako erakunde politikotik dator: *Fasci Italiani di Combattimento*. Izen hori antzeko esperientziei ere aplikatu zitzaion, eta, azkenean, horren bidez, [Mussolinik](#) sortutako erregimenaren eta mugimenduaren antzekoak izendatzeko erabili zen.

### *Bereizgarriak*

- *Nazionalismo erradikala, sarritan gerraren bat galdu duten herrien nazionalismoa izaten da, edo euren dagokiena ez lortzeagatik haserre dauden herrien nazionalismoa. Italiaren kasuan, faxismoa Gerra Handian euren nahi zutena ez lortzearen ondoriozko haserrean oinarritu zen; Alemaniaren kasua bestalde, Versailleseko itunak sortutako haserrean euskarritu zen. Muturreko nazionalismo horren hurrengo pausoa inperialismoa zen.*
- *Faxismoa parlamentuaren eta liberalismoaren aurka agertzen da. Bere ustez, sistema demokratikoei herritarren arteko banaketa sustatzen dute, eta, horrenbestez, herriaren ahultasuna dakarte. Indibidualismo liberalaren aurrean, faxismoak gizabanakoaren otzantasuna bultzatu eta horrek askatasuna ukatzea sustatzen du. Ideologia horren arabera, gizabanakoak Estatu diktatorialaren menpe daude, eta Gobernua elite batek zuzendu behar du.*
- *Idea horietan oinarrituz, faxismoaren printzipiorik larriena sortu zen: arrazismoaren justifikazioa, hau da, lehenengo eta bigarren mailako pertsonak egotearen justifikazioa.*
- *Faxismoa ez da arraziaz eta intelektualez fidatzen, eta herrien sentimenduetan eta fanatismoan euskarritzen da.*
- *Kezka sozialak ere baditu, eta buruzagirik gehienak herri xehekoak dira, baita militanterik gehienak ere.*
- *Faxismoak buruzagitzaren absolutuaren alde egin zuen eta buruzagiaren indarra horren nortasunaren gurtzan oinarritzen zen, eta, horretarako, propaganda eta edozein kritikaren debekua erabiltzen zituen.*

*Faxismoa:* Hitza [Mussolinik](#) 1919an sortutako erakunde politikotik dator: *Fasci Italiani di Combattimento*. Izen hori antzeko esperientziei ere aplikatu zitzaion, eta, azkenean, horren bidez, [Mussolinik](#) sortutako erregimenaren eta mugimenduaren antzekoak izendatzeko erabili zen.

### *Bereizgarriak*

- *Nazionalismo erradikala, sarritan gerraren bat galdu duten herrien nazionalismoa izaten da, edo euren dagokiena ez lortzeagatik haserre dauden herrien nazionalismoa. Italiaren kasuan, faxismoa Gerra Handian euren nahi zutena ez lortzearen ondoriozko haserrean oinarritu zen; Alemaniaren kasua bestalde, Versailleseko itunak sortutako haserrean euskarritu zen. Muturreko nazionalismo horren hurrengo pausoa inperialismoa zen.*
- *Faxismoa parlamentuaren eta liberalismoaren aurka agertzen da. Bere ustez, sistema demokratikoei herritarren arteko banaketa sustatzen dute, eta, horrenbestez, herriaren ahultasuna dakarte. Indibidualismo liberalaren aurrean, faxismoak gizabanakoaren otzantasuna bultzatu eta horrek askatasuna ukatzea sustatzen du. Ideologia horren arabera, gizabanakoak Estatu diktatorialaren menpe daude, eta Gobernua elite batek zuzendu behar du.*
- *Idea horietan oinarrituz, faxismoaren printzipiorik larriena sortu zen: arrazismoaren justifikazioa, hau da, lehenengo eta bigarren mailako pertsonak egotearen justifikazioa.*
- *Faxismoa ez da arraziaz eta intelektualez fidatzen, eta herrien sentimenduetan eta fanatismoan euskarritzen da.*
- *Kezka sozialak ere baditu, eta buruzagirik gehienak herri xehekoak dira, baita militanterik gehienak ere.*
- *Faxismoak buruzagitzaren absolutuaren alde egin zuen eta buruzagiaren indarra horren nortasunaren gurtzan oinarritzen zen, eta, horretarako, propaganda eta edozein kritikaren debekua erabiltzen zituen.*

### *Hitler eta nazismoa*

*Alderdia:* Alemaniako [Langileen Alderdi Nazional Sozialista \(alderdi nazia\)](#) 1920an sortu zen eta eskuineko mutur nazionalistaren barruan zegoen. [Adolf Hitler](#) alderdiko buruzagi nagusia izan zen, 1921etik aurrera.

*Kolpea:* 1923an, naziek estatu kolpea ematen saiatu ziren, baina ez zuten arrakastarik lortu. Hitlerrek bost urteko kartzela zigorra jaso zuen, nahiz eta espetxean bederatzi hilabete soilik igaro.

Nire borroka: Kartzelan egon zen bitartean, Mein Kampf (Nire borroka) liburua idatzi zuen, bere ideia politiko nagusiak laburbiltzen zituen liburua:

- Nazionalismoa.
- Versailleseko ituna baliogabetzea.
- Arrazismoa.
- Antisemitismoa.
- Espantsionismoa. Nazio alemaniarraren iraupenerako beharrezkoa zen bizi espazioaren konkista.
- Liberalismoaren mesprezua eta sozialismoarekiko nahiz komunismoarekiko gorrotoa.
- Estatu zentralizatua.
- Buruzagi karismatikoa: Führerra.

Arrakasta: Hogeiko hamarkadan alderdi nazia gehiago ezagutzen zuten Asaltoko Atalek komunisten, sozialisten eta juduen aurka aplikaturiko bortizkeriagatik, hauteskundeetan ateratako emaitzengatik baino. Baina 1929ko krisi ekonomikoaren ondorioz, nazismoak gero eta atxikipen gehiago lortu zuen. Atxikipenik gehienak erdiko klaseetan lortu zituen, krisi ekonomikoaren ondorioz klaseek hondamendian baitzeuden. Langileen eta burgesiaren artean ez zuen atxikipen handirik lortu, azken horrek alderdia eta horren buruzagia gorrotatzen zituelako, baldarrak zirelakoan, baina ezkerrearen aurkako tresna erabilgarritzat hartzen zituen. Hala eta guztiz ere, industrialari handien artean nazismoak laguntza ekonomiko garrantzitsuak lortu zituen.

### Hitlerrek agintea lortu

Bi urte bete baino lehen, 1933 eta 1934 bitartean, Hitlerrek Alemaniako erregimen demokratikoa diktadura bihurtu zuen:

- Errepublikako presidentea kantzeleri izendatu zuen; Hitlerren lehenengo gobernuan, ministro kontserbadoreen gehiengoa zegoen, eta naziek bi ministerio soilik izan zituzten, baina horietako bat oso garrantzitsua: Barne Ministerioa.
- Gobernu berriak hauteskunde orokorretarako deialdia egin zuen berehala. Hauteskunde kanpaina, su eman zioten Parlamentuaren (Reichstag) eraikinari. Horren errua komunista holandes bati leporatu zioten, eta, horren eraginez, oposizioaren aurkako kanpaina bortitza hasi zen, batez ere alderdi komunistaren aurkako, alderdi horretako militante asko atxilotuz. Gaur egun badakigu sua naziek eurek piztu zutela.
- Otsailaren 28an, Nazioa eta Estatu Babesteko Dekretua promulgatu zuten, eta horrek aginpide handia eman zien polizia. Horixe izan zen Hitlerren diktaduraren lehenengo legea.
- Martxoaren 23an, Parlamentuak erabateko aginteak eman zizkion Hitlerri lau urterako. Diktaduraren bigarren legezko oinarria izan zen. Ezkerreko alderdi politikoak debekatu eta alderdi moderatuak deseginda geratu ziren. 1933ko ekaineko lege batean, alderdi nazia baimendutako bakarra izan zen.
- Hitlerren aginte absolutua finkatzeko hurrengo urratsa langileen bizi baldintzak hobetzearen aldeko buruzagi naziak ezabatzea izan zen; horrela buruzagi kontserbadoreak, industrialariak eta Armada pozik gelditu ziren 1934ko ekainaren 30ean Labana Luzeen gaua izan zen eta Asaltoko Ataletako 300 hilde eta Hitlerren aurkari batzuk hil zituzten.
- 1934ko abuztuan, Hindenburg presidentea hil zen eta Hitlerrek bere gain hartu zituen kantzeleriaren eta presidentearen eginkizunak. Ordutik aurrera, aginte absolutua izan zuen. Alemaniako Demokraziaren heriotza izan zen.

### Nazien diktadura

#### Ekintzak

- Administrazioa aurkaririk gabe eta alderdi nazia kontrolpean geratu zen berehala.
- Hitler armadaren buru bihurtu zen eta ofizialek leialtasun zina egin behar zuten bere aurrean.
- Oposizioa ezabatu eta bertako buruzagiak atxilotu edo erbesteratu egin ziren.


- 1933an, lehenengo kontzentrazio esparruak egin ziren, eta, horietan, oposizio politiko eta sindikaleko buruzagiak sartu zituzten.
- Gestapo zen Estatuaren polizia sekretua eta SSek alderdiaren Asaltoko Atalen ordezkoko polizia militarra. Biak jardun zuten askatasun osoz, benetako estatu poliziala ezarri. Himmler, SSen eta Gestaporen burua, Reicheko polizia guztien buru izendatu zuten.



### Antisemitismoa

Ideologia naziaren oinarrietako bat izan zen. Erregimen berriaren eginkizun nagusienetarikoa bat arrazaren garbitasuna bermatzea zen, gutxiengo etnikoak baztertuz, batez ere juduak, nazien ustez, Alemaniaren gaitz guztien errudunak juduak baitziren. Berehala, juduen aurkako jazarpen sistematikoa hasi zen:

- Juduen saltokien aurkako boikota egin zen.
- Judu guztiak administratibetik nahiz unibertsitateetatik kanpo gelditu ziren.
- Nuremberg-eko 1935eko legeek arioen eta juduen arteko ezkontzak debekatu zituzten.
- Ordurako juduek galduta zuten naziotasun alemana.
- 1938ko amaieran, judu batek diplomatikoa aleman bat hil zuen Parisen eta, hilketa hori aitziatzat erabiltza, juduen aurkako jazarpen erraldoia hasi zen: kristal apurtuen gaua.
- Juduen egoera okerrera zihoan: 1939an, 200.000 juduak ihes egin zuten Alemaniatik, besteak beste, zientzialari, pentsalari eta artista aleman onenetariko batzuk: Einstein zientzialaria, Thomas Mann idazlea eta ospe handiko artistak. Eta Alemanian geratu ziren 300.000 juduek holokaustoa deritzona jasan zuten, Bigarren Mundu Gerran.



### *Gizartearen kontrola*

- *Berehala egin zen gizarte taldeen banaketa eta Führerrari obedientzia itsua derrigorrezkoa zen.*
- *Hitlerren gazteriak, sexuaren eta adinaren arabera banatuta, mutilen eta nesken heziketa arduratzen ziren; kirola eta jarduera paramilitarrak, berriz, arioren arrazaren ustezko nagusitasunaren adierazpenak izan ziren.*
- *Sindikatuak desegin ondoren, Lanaren Frontea sortu zen; bertan nagusiak eta langileak sartzen ziren, eta fronte hori Alemaniako langileen mugimendua zorrotz kontrolatzeko tresna izan zen, mugimendu horrek errebindikazio tradizio luzea eta sendoa baitzuen.*
- *Ekonomia arloan, nazismoak gizarteak onartzea erraztu zuten arrakasta batzuk lortu zituen. Ekonomia suspertzeko, dirigismo gogorra erabili zen, autarkia edo buruaskitasun ekonomikoa lortu ahal izateko. Suspertzea, batik bat herrilan handietan eta armamentu industriaren hazkunde ikusgarrian oinarritu zen; hazkunde hori militarizazio berriko politikaren ondoriozkoa izan zen, nahiz eta Versailleseko itunak politika hori debekatu. Horren ondorioz, langabezia murriztu egin zen, eta soldadu kopuruak izandako gorakada handia ere lagungarria izan zen horretarako. Langileak sindikatirik eta greba eskubiderik gabe geratu ziren.*
- *Nazismoaren berrikuntza nagusietariko bat propagandaren erabilera izan zen. Propaganda eta Informazioko ministroa [Goebbels](#) izan zen, eta horrek komunikabideen erabateko kontrola zuen; prentsa, irratia eta dokumental zinematografikoak erabili zituen, biztanleriaren pentsamendua bateratzeko eta alderdiaren nahiz Führerraren jarraibideen menpe jartzeko.*
- *Kulturaren eta artearen arloko jarduerari ere zentsura ezarri zitzaion, baita bizitza intelektualari eta hezkuntzari ere. Gazteria aleman berriak arioa eta nazionalsozialista izan behar zuen. Juduak eta erregimenaren aurkariak unibertsitateetatik kanporatu ziren. Liburu arriskutsuak liburutegietatik desagertu ziren; arte modernoko obrak museotatik atera ziren. Alemania osoan, otzantasun eta jazarpen erregimena ezarri zen.*



*Bideoa: Hitlerren garaiko Alemania*

## *ETA BITARTEAN ERRUSIAN ZER ARI ZEN GERTATZEN?*

### *Errusia*

*XX. mendetik errotuta zegoen erregimen zaharrari bukaera emango zion iraultza sortu zen Errusian. Iraultza hori 1917 an hasi zen. Hala ere, 1905 etik zegoen errusiar gizartea tsarismoaren aurkako jarrera erakusten... Gogoratu behar dugu, kontestu honetan, Europan 1914 an I. mundu gerra hasi zela eta Errusiak parte hartu zuela, 1917 an alde egin behar izan zuen arte. Ez zen kasualitatea izan. Euren lurraldean iraultza Boltxebikea sortu baitzen.*

*Errusiako Iraultza. SESB*





*Errusiako 1917ko iraultza XX. mendeko gertaera nagusitariko bat izan zen. Langileen mugimendu antolatuaren garaipena izan zen, mundu osoko kapitalismoaren kontrako lehenengo estatua. Sistema politiko berriari mundu osoko alderdi politiko, erakunde eta pertsona askok jarraitu zioten, gizarte liberala eta kapitalista bidegabea zela pentsatzen zutelako. Beraz, XX. mendean hiru aukera politiko eta sozial ikus ditzakegu:*

- *Demokrazia liberala*
- *Diktadura kontserbadoreak edo faxistak*
- *Sozialismoak eta komunismoak*



### *Oinarri ahuleko erraldoia*

*XX. mendearen hasieran, tsarren absolutismo eta askatasunik eza, oztopo izan ziren Errusiako bizitza politikoaren berezko garapenerako eta herriaren modernizaziorako. Errusia Europako potentzia handia zen; baina, aldi berean, kontinenteko herririk atzeratuenetarikoa ere bai. Kontraesan horren eraginez, tsarren politikaren aurkako mugimenduak sortu eta sorrera horrek 1905eko altxamendua eragin zuen, 1917ko iraultza handiaren aurrekaria (tsarren inperioari amaiera emango zion iraultza).*



## *Ekonomia aurreratua eta gizarte atzeratua*

*Inperioa: Errusiako Inperioa, XX. mendearen hasieran, munduko potentzia nagusienetakoa zen. Indar ikaragarria zeukan, baina indar hori itxurazkoa baino ez zen. Bertako ekonomia eta gizarte atzeratuaren ondorioz, Errusia oso urrun zegoen, Belgika edo Britainia Handia bezalako nazio modernoetatik.*

*Gizartea: Gutxiengo txiki batek dirutza izugarriak zituen eta nekazari eta industria langileen gehiengoa egoera negargarrian bizi zen; bien arteko diferentzia oso handia zen. Gizarte arazoetako bat erdiko klaserik ez egotea zen, hau da, mendebaldeko herrietan hain ugaria zen burgesia indartsurik ez egotea; kontuan izan behar da, gainera, landa inguruko morrontza oso berandu ezabatu zela.*

*Nekazaritza: Lurraren zati handia jabe gutxi batzuen esku zegoen: aristokrazia, monarkia, Eliza ortodoxoa eta lurjabe handiak. Gainera, 1906 eta 1910 bitartean nekazaritza modernizatzeko erabilitako erreforma batzuek kulak izeneko nekazari aberatsei soilik egin zieten mesede.*

*Industria: Atzerapen ekonomikoaren ondorioz, industria garapena ere berandu iritsi zen eta enpresarik gehienak atzerriko kapitalen esku zeuden. 1913an hiru milioi langile baino ez (%5), eta nekazarien kopurua %80tik gorakoa zen. Egoera negargarrian bizi ziren, Erresuma Batuko, Belgikako edo Frantziako langileek ehun urte lehenago bizi izandako egoeran. Fabrika handietan pilatuta egoteak mesede egin zion ideia iraultzaileen hedapenari.*

## *Gatazka politikoak*

### *Agintea*

- 1. XX. mendearen hasieran, Errusiako Inperioa garaiz kanpoko monarkia absolutua zen. Kapitalismoa nagusitzen ari zen mendebaldeko munduaren ondoan, Tsarrak mugarik gabeko agintea izaten jarraitzen zuen.*
- 2. Tsarra errusiar guztien enperadorea zen eta etnia eta nazio ugari kontrolatzen zituen, burokrazia sendo baten eta polizia ahalguztidunaren bitartez. Eliza ortodoxoaren agintari nagusia ere tsarra bera zen.*
- 3. Hala ere, poliki-poliki bada ere, aldaketa sakonak eta absolutismoaren amaiera eskatzen zuten talde politikoak sortzen hasi ziren.*

### *Hirian*

- 1. Hirietako erdiko klase berriak monarkia parlamentarioa ezarri nahi zuen, Europako beste herrietan zegoenaren antzekoa.*
- 2. Batez ere, Alderdi Konstituzional Demokratikoa KD (kadete) izenekoan biltzen ziren.*

## Landan

1. Landa inguruan ere, nekazariak oso haserre zebiltzan eta gehienek lurren jabetza lortu nahi zuten.
2. Nekazarien haserrea Alderdi Sozialista Iraultzailearen (SI) inguruan pilatu zen eta alderdi hori nagusitu zen nekazaritza eremuetan.

*Industria+Intelektualak:* Industriako langileen eta intelektual erradikalen artean, marxismoaren ideia iraultzaileak hedatzen joan ziren, eta, ondorioz, Errusiako Langileen Alderdi Sozialdemokrata sortu zen. 1903an, bi zati sortu ziren alderdi horretan:

1. Boltxebikeak gutxiengoa ziren. Ezkerreko marxistak ziren eta buruzagia Lenin zen.
2. Mentxebikeak edo sozialista moderatuak gehiengoa ziren. Demokratekiko lankidetzan onartzen zuten, tsarra tronutik kentzeko eta Mendebaldeko demokrazien antzekoa ezartzeko.



## 1905eko iraultza

*Krisia:* 1902-1903 bitarteko krisi ekonomikoan, langileen grebak, nekazarien altramenduak eta ekintza terroristak egon ziren. Egoera horren eragileak Errusiaren eta Japoniaren arteko 1904ko gerra izan zen. Pronostiko guztien aurka, Japoniak Errusia garaitu zuen, eta, horren eraginez, biztanleak haserretu eta 1905eko iraultza hasi zen.

*Igande Odoltsua: 1905eko urtarrilean, langileen manifestazio baketsua egon zen, jauregi inperialeraino, tsarrari "babesa eta justizia" eskatzeko, lan baldintzak hobetzeko eta "guztien berdintasuna eta askatasuna" aldarrikatzeko. Manifestazioa armekin zapaldu zuten, eta ehunka hildako eta zauritu egon ziren. Gertaera horri Igande Odoltsua izena jarri zioten, eta horrek iraultza eragin zuen. Grebak, matxinadak eta altxamenduak Errusia osoan hedatu ziren, eta lehenengo sobietak edo langileen ordezkarien kontseiluak sortu ziren, 1917ko iraultzan eginkizun garrantzitsua izan zuten kontseiluak.*

*Erreformak: Protesta ekintzei ezin zitzaizenez amaierarik eman, Nikolas II.a tsarrak erreforma batzuk onartu zituen:*

- 1. Ordezkarien biltzarra edo Duma.*
- 2. Lanaren eta gizarte arloko hobekuntzak: eskubide sindikalak, 10 orduko lanaldia...*
- 3. Baina tsarra liberalismoaren aurka zegoen, eta boikota egin zion Dumaren funtzionamenduari, eta, handik gutxira, erreforma politiko guztiak ezabatu zituen. Horrela, autokrazia itzuli zen Errusiarra.*
- 4. Oposizioak argi ikusi zuen tsarra gobernutik kendu beharra zegoela, egoera aldatu ahal izateko.*



## *1917ko iraultza*

*Gerra Handiak tsarraren Errusiaren gabeziak agerian jarri zituen eta 1917ko otsaileko iraultzak amaiera ekarri zion tsarraren erregimenari. Zuzendari berriak ez ziren herriko arazo nagusiak konpontzeko gauza izan, eta horrek boltxebikeen garaipena eragin zuen, urte horretako urriko iraultzan.*



## *Otsaileko iraultza*

### *I. Mundu Gerra*

- 1914an, Errusia Lehen Mundu Gerran sartu zen, Frantziarekin eta Erresuma Batuekin batera. Atzerapen ekonomikoak eta tsarraren gaitasunik ezak agerian jarri zuten Errusiak ez zeukala Alemania eta Austria-Hungaria etsai indartsuak garaitzeko gaitasunik. Gerra luzatzearen ondorioz, herria kaosean eta iraultzan murgilduta gelditu zen.*

- Gerra luzatu ahala, haserrea gero eta biziagoa zen biztanleen artean, eta tsarrak eta horren erregimenak gero eta ospe txarragoa zuten. Garraioan eta produkzioan izandako akatsen eraginez, armada eta hiriak hornitzen zituzten fabrikak gelditu egin ziren, ez baitzuten lehengairik edo erregairik, eta hirietako biztanleak gose eta hotz ziren. Porrotak eta etsaiak aurrera egiten zuela ikusita, etsipena nagusitu zen.
- Gainera, hondamen guztien errua tsarraren erregimenari eta Nikolas II.ari leporatzen zitzaion.
- 1914an, boltxebikeak soilik egon ziren Errusia gerran sartzearen aurka. Baina, denborak aurrera egin ahala, gerran jarraitzearen aurkariak gero eta gehiago ziren.

*Haserrea: 1916-1917ko neguan, armadaren eta hirien haserrea hazi egin zen, bizitza normalizatua egiteko gauza ugari falta baitzen. Temperatura glaziarretan, emakumeen ilara luzeak sortzen ziren hornidurarik gabeko denden aurrean, janariak edo ikatza lortu ahal izateko.*

*Manifestazioak: 1917ko otsailean, Petrogradoko hiriburuan (lehen San Petersburgo zen) protestako bat-bateko manifestazioak egon ziren, eta, horietan, batez ere emakumeek hartu zuten parte. Manifestazio horietan, greban zeuden langileak ere parte hartzen hasi ziren apurka-apurka, eta poliziek ez zeukaten hiria kontrolpean izateko gaitasunik.*

*Errepresioa: Gobernuak armada bidali zuen altxamendua geldiarazteko, baina tropek ez zuten gogor jardun.*

*Duma: Egoera hori ikusita, Dumako presidentek gobernua herriaren konfiantza izango zuen gobernu berri bat izendatzeko eskatu zion tsarrari. Nikolas II.aren erantzuna Duma itxia izan zen.*

*Azkenean: Errusiako egutegi ortodoxoko otsailaren 27an (gurean martxoaren 12an), manifestazioaren aurka bidalitako tropen zati bat protestetara batu zen. Hiri osoa matxinoen esku geratu zen, eta ministroak eta agintari militarrek atxilotu egin zituzten. Biharamunean, gobernuak dimititu egin zuen.*

### *Agintea*

- Tsarraren gobernuaren dimisioak sortutako hutsunea ikusita, Dumako diputatu liberalek Dumako Behin-behineko Komitea sortu zuten.
- Aldi berean, Petrogradoko Langileen eta Soldaduen Sobieta sortu zen, Behin-behineko Komite Betearazlea izena hartuta; komite hori mentxebikeek eta Alderdi Sozialista Iraultzaileko kideek kontrolatzen zuten. Horrela, bi aginte sortu ziren: Dumarena eta Petrogradoko Sobietarena.
- Martxoaren 2an, Duma eta Petrogradoko Sobieta behin-behineko gobernua sortzeko akordio batera iritsi ziren. Gobernu hori Alderdi Konstituzional Demokratiko (kadete) kideek osatu zuten, batez ere, eta sozialista bakarra Kerenski zen. Sozialista moderatuak gobernu honen aldekoak ziren.

*Nikolas II.a: Jarraitzailerik gabe geratu zen eta abdikatu egin zuen. Tronua anaia Migel duke handiari utzi zion, baina honek ez zuen hartu nahi izan. Horrela, Errusia errepublika bihurtu zen.*



### *Behin-behineko gobernuak*

*Tsarraren erregimena desagin zenean, iraupen laburreko gobernu batzuk egon ziren, baina horiek ospe txarra zuten biztanleen artean. Bien bitartean, politikari erradikalenak, boltxebikeak, agintea derrigorrez eskuratzeko prestakuntzetan murgilduta zebiltzan.*

### *Helburu eta erabakiak*

- *Behin-behineko lehenengo gobernuaren helburu nagusia mendebaldeko Europakoan antzeko erregimen demokratikoa ezartzea izan zen.*
- *Gerran aliatuekin batera jarraitzea erabaki zuen.*
- *Demokraziaren aldeko neurri batzuk onetsi zituen: amnistia politikoa, askatasun politikoak eta pertsonenak ezartzea, biltzar legegilerako deia egitea...*

*Atzerapenak: Baina arazo nagusien konponbideak atzeratu egin ziren:*

- *Langileen egoera hobetzea.*
- *Lurra nekazarrien artean banatzea.*
- *Errusiar etniakoak ez zirenak herrien autonomiak bideratzea*
- *Bakea. Errusiar gehienak nekatua zeuden hildako kopuru ikaragarria sortu zuen gerra harekin.*

*Hau guztiaren ondorioz, gobernuak Errusia gerran mantentzera erabaki zuenean, gero eta ospe txarragoa hartu zuen.*

*Armada: Armada desagiten hasi zen. Boltxebikeek bakearen alde egindako propaganda frontean eta estatu osoan hedatzen zen. Gero eta desertzio gehiago eman ziren.*

*Sobietak: Otsaileko iraultzaren ondoren, sobietak ezarri ziren estatu osoan, fabriketan nahiz landa-inguruan, armadan eta hirietan, eta gero eta aginte gehiago eskuratzen joan ziren. Ez zieten jaramonik egiten gobernuaren erabakiei, edo beste erabaki paraleloak hartzen zituzten. Praktikan, sobietek bigarren agintea osatzen zuten.*

### *Gobernuak*

- Behin-behineko gobernuak eratu eta protestako manifestazioak itzuli ziren kalera.
- Azkenik, Kerenskik mentxebikeen eta Alderdi Sozialista Iraultzailearen gehiengo gobernuak eratu zuen.
- Hala ere, boltxebikeek gobernu horiek guztiak kritikatzeko jarraitu zuten, gerrak jarraitzearen aurka agertu eta lurraren berehalako banaketa eskatu zuten; horren ondorioz, gero eta eragin handiago hartzen joan ziren, batik bat sobietetan.



### Urriko iraultza

*Iraultzak:* Otsailean tsarraren absolutismoaren aurkako altxamendua izandakoa, handik hilabete gutxira, mundu osoko lehenengo iraultza sozialista bihurtu zen.

*Boltxebikeak:* Militante gutxi alderdia osatzen zuten, baina gero eta ospe handiagoa lortzen joan ziren herri klaseen artean.


*Lenin:* Tsarra tronutik kendu eta hilabetera, boltxebikeen buruzagi nagusia, Lenin, Suitzako erbestetik itzuli zen Errusiara. Iritsi bezain pronto, Apirilko Tesiak izenekoan laburbildu zituen Errusiako etorkizunerako zituen ideiak: berehalako bakea eta, behin-behineko gobernuaren ordean, sobieten gobernuak ezartzea. Azkenean, behin-behineko gobernuak jazarri egin zituen boltxebikeak, altxamenduaren bultzatzaileak zirela-eta. Leninek Finlandiara alde egin behar izan zuen eta buruzagi boltxebike asko atxilo hartu zituzten.

*Kornilov:* Tsarraren armadaren komandante nagusia izandakoa zen eta, uda amaieran, indar-kolpea ematen saiatu zen, ordena bermatuko zuen gobernu berria osatzeko. Kerenski lehen ministroak indar iraultzaile guztiak bildu behar izan zituen, altxamendua gerarazteko. Boltxebikeen laguntza erabakigarria izan zen une honetan.

### Leninen kolpea

- Egoera gero eta txarragoa zela ikusita, Lenin ekintza iraultzailera igaro zen. Erbestetik eskutuan itzuli eta bere alderdiaren komite nagusia altxamendu armaturako berebiziko aukeraz konbentzitu zuen, Kerenski garaitu eta agintea hartu ahal izateko.
- Kolpea antolatzeko ardura Trotskik izan zuen, hau da, hiriburuko sobietaren presidentea eta hiriaren defentsaren arduraduna zenak.
- 1917ko urriaren 24tik 25erako gauean (gurean azaroaren 6tik 7ra), boltxebikeen tropek eta miliziek Petrogradoko gune nagusiak okupatu zituzten. Ministro guztiak atxilo hartu zituzten, Kerenski izan ezik, honek alde egin baitzuen.

- Biltzarrak gobernu berria aukeratu zuen, Herriaren Komisarioen Kontseilua, eta horren presidente Lenin izendatu zuten. Boltxebikeen iraultzaren garaipena izan zen.



### SES Bren sorrera

Boltxebikeen gobernuak aurre egin behar izan zien herriaren errebindikazio nagusiei: bakea, lurraren banaketa eta nazionalitateen errespetua. Gero, herria gerra zibilean sartu zen. Politika Ekonomiko Berria (NEP) ezartzeak erregimen komunista finkatu eta berehalako hobekuntza ekonomikoa ekarri zuen.



Erregimen berria: lehenengo neurriak

Agintea: Langileen alderdiak lehenengo agintea Errusian hartu zuen.

Dekretuak

- Gerraren amaierari buruzko dekretuak anexiorik eta kalte-ordainik gabeko bakea proposatzen zuen.



- Lurrari buruzko dekretuak lur-jabetza handiak desjabetu zituen, inolako ordain ekonomikorik gabe eta jabetzok nekazaritza komiteen esku geratu ziren.
- Industriako enpresei buruzko dekretuak langileen eta enplegatuen kontrolpean utzi zituen fabrikak.
- Nazionalitateei buruzko dekretuak Errusiako herriek euren etorkizuna askatasunez aukeratzeko eskubidea aldarrikatu zuen.

*Biltzar Konstituziogilea:* 1918ko urtarrilean bildu zen eta bilera horretarako deialdia urriko iraultza baino lehenagoko gobernuek egin zuten. Boltxebikeak gutxienak ziren Biltzarrean, eta gehienak Alderdi Sozialista Iraultzaileko (SI) militanteak ziren. Leninen ustez, Biltzarrak eredu politiko burgesari jarraitzen zion, sobieten demokrazia sakonagoaren aurrean, eta, horrenbestez, Biltzarra desegin egin zuen.

*1. konstituzioa:* 1918ko uztailan, Sobieten Biltzarrak lehenengo konstituzio sobietarra onetsi zuen; bertan, gizarte klaserik eta estaturik gabeko sozialismoa eraikitzeke erabakia aldarrikatzen zen, eta sobietak jartzen ziren aginte iraultzailearen oinarrian.

### *Iritzia*

- Errusian inork ez zuen Gerra Handian jarraitzerik nahi, eta, beraz, gobernu berriaren helburu nagusia bakea izan zen. 1917ko abenduan, armistizioa sinatu zen Alemaniarekin eta Austria-Hungariarekin, eta bakeari buruzko negoziazioak ireki ziren. Hala ere, boltxebikeen alderdiaren barruan, denek ez ziren iritzi berekoak.
- Lenin bakea edozelan lortzearen aldekoa zen, iraultzaren iraupena segurtatu ahal izateko.
- Alderdiaren barruko zatirik erradikalenak, horren buru Trotski zelarrik, ostera, gerran jarraitu nahi zuen, iraultza beste herri batzuetara esportatu ahal izateko.

*Bakea:* Alemaniako armadaren presiopean, boltxebikeen alderdiak eta Gobernuak Alemaniak ezarritako baldintza gogorrak onartu behar izan zituzten. Bakea Brest-Litovsk hirian sinatu zen. Errusiak 800.000 km<sup>2</sup> eta biztanleriaren laurdena galdu zituen, baina iraultza salbatu egin zen.

### *Gerra Zibila eta gerrako komunismoa*

*Gerra Zibila:* 1918 eta 1920 bitartean, erregimen berriak estatu osoan zabalduetako gerra zibilari aurre egin behar izan zion.

*Laguntzak:* Frantziak, Erresuma Batuak eta Japoniak geldiarazi egin nahi zuten iraultza eta kapitalak eta armak eman zizkieten iraultzaren aurkako armadei, zuriei, horiek Armada Gorriko iraultzaileen aurkakoak baitziren.

*Garaipena:* Trotskik zuzendutako armada gorriak diziplina zorrotza eta eraginkortasun handia lortu zituen, eta, horrela, 1919aren amaieran, armada zuriak garaitu zituen.

*SESB:* 1922ko abenduan, Sobietar Errepublikak Sozialisten Batasuna (SESB) sortu zuten eta horrek indartu egin zuen sobieten agintea.

*Gerrako komunismoa:* Errusiak iraultzaren aurretik zeukan egoera ekonomiko kaotikoak txarrera egin zuen gerra zibilean. Gobernu komunistak konpondu beharreko arazo nagusia hornidura izan zen. Gogor zuzendutako nekazariak uzten zati bat entregatu behar izan zuten; baina konfiskatze horiek, batez ere kulakei zegokienez, erresistentzia eta bortizkeriako giro nabarmena sortu zuten nekazaritza inguruetan; baina, horrela, hirietara janari gehiago iritsi zen. Gerra zibilean, goseak eta gaixotasunak milioika errusiar hil zituzten.

### *Politika Ekonomiko Berria*

*Ekonomia: Gerra zibila bukatu zenean, herria erabat nekatuta zegoen; goseak, gaixotasunek eta gerrak milioika biktima eragin zituzten; nekazaritzako produkzioa gerra aurrekoaren bi herenekoa zen. Industria zarpirenera murriztu zen; eta urritasuna eta haserrea orokorrak ziren. Leninek herriak atsedenaldia behar zuela ulertu zuen.*

*NEP: Politika Ekonomiko Berriak goitik beherako aldaketa ekarri zuen.*

#### *-Liberalizazioak*

- *Barne-merkataritzan askatasuna ezarri zen berriro.*
- *Nekazariak, zergak jenerotan ordaindu ondoren, soberakinak askatasunez saltzeko aukera zuten.*
- *Industrietan eta zerbitzuetan, enpresa pribatu txikiak sor zitezkeen.*
- *Atzerriko kapitala sartzeko aukera eman zen.*

*-Liberalizatu gabe: Estatuak kredituaren eta ekonomiako sektore nagusien kontrola beretzat gorde zuen: trenbide eta beste garraio-bide batzuen eta enpresa handi, banku eta atzerriko merkataritzarena.*

#### *Ondorioak*

- *Ekonomia berehala suspertu zen. 1923an, nekazaritzako produkzioa 1913ko mailaraino iritsi zen, eta industriako produkzioak 1927an lortu zuen hori.*
- *Baina politika ekonomiko berriak arazo sozialak sortu eta horren eraginez, Alderdi Komunista zatitu egin zen, burges aberats berriak agertu zirela ikusita: hirietako bitartekariak, industrialari batzuk eta kulakak.*
- *Baina, zalantzarik gabe, politika ekonomiko berriaren balantzea ona izan zen, oinarri ekonomikoak ezarri eta produkzioa nahiz biztanleen bizimodua hobetu zituelako.*

#### *Stalinen garaia (1927-1939)*

*Stalin SESBko historiaren bigarren aldiko protagonista izan zen. Bere diktadura ezarri, erregimen sobietarra finkatu eta SESB potentzia handi bihurtu zuen. Stalinen politikaren zutabe nagusiak lurraren sozializazio eta planifikazio ekonomikoa izan ziren.*



#### *Leninen ondorengotza*

Leninek, gaixotuta, agintea utzi behar izan zuen 1923an, eta, urtebete baino lehenago, hil egin zen. Sobietar agintari nagusia izandakoak ez zuen testamentuan argitu ondorengotzari lotutako alderdirik. Horrela, Alderdiaren Komite Zentralak presidente berria aukeratu behar izan zuen.

Hautagaiak: Bi hautagai nagusi zeuden:

- Leon Trotski: Bere merezimenduak agerian zeuden: San Petersburgoko sobieten burua izan zen 1905ean, urriko iraultzaren antolatzailea eta Armada Gorriaren sortzailea. Agian, azkarregia eta adimentsuegia zen Alderdiako hierarka handientzat, horiek ez baitzituzten ahazten Trotskik Leninekin une garrantzitsuetan izandako eztabaidak.
- Josef Stalin: Hasieratik boltxebikea izandakoa, eginkizun aktiboa izan zuen 1905eko iraultzan; gainera, 1917ra arte erbesteratuta egon zen. Leninen jarraitzaile sutsua zen, eta kargu garrantzitsuak eduki zituen Alderdian. Boltxebikeen lehenengo gobernuan egon zen, eta, antolaketarako zuen gaitasuna kontuan hartuta, alderdiaren idazkaritzara iritsi zen 1922an. Postu horretatik, bere konfiantzako pertsonak postu garrantzitsuetan jarri eta aurkakotzat zituenak baztertu egin zituen.

Bien arteko desberdintasun nagusia hurrengoa zen:

- Trotski mundu mailako iraultzaren aldekoa zen eta atzerriko arerioen aurkako iraultza egin behar zela uste zuen.
- Stalinek, berriz, herri bateko sozialismoa defendatzen zuen. Jarrera hau nagusitu zen azkenean, 1917tik aurrerako sakrifizio guztiek atsedeen baten beharra eskatzen baitzuen.

Emaitzak: 1927an, Stalinek Alderdiaren eta SESBren barruan agintea kontrolatzen zuen. Lenin hil zenetik, Trotskiren posizioa gero eta ahulagoa izaten joan zen. Ordura arte izan zituen karguak galdu zituen, atxilotu egin zuten eta Siberiara erbesteratu zuten; azkenik 1929an, SESBtik kanporatu zuten. Mexikora joan eta, bertan, Stalinen agentea zen espainiar batek erail zuen.



## Sozializazioa eta planifikazioa

1929ko apirilean NEP desegin egin zuten eta ekonomia sozialistak, liberalismo kapitalistari erantzuna eman nahian, estatuak planifikatutako ekonomia jarri zuen martxan.

Bosturteko I. Plana: 1928ko urriaren 1ean hasi zen. Helburu nagusiak hurrengoak izan ziren:

- NEP-ekin sortutako sektore pribatua desagerraraztea.
- Industriako inbertsio handiak autofinantzatzea.
- Teknikarien eta langile espezializatuen eskala handiko heziketa.
- Industria astuna garatzea.
- Herrilan erraldoiak burutzea, SESBk zuen atzerapen historikoa gainditu ahal izateko.

Nola: Asmo handiko helburu horiek lortzeko, biztanleak ia modu militarrean mobilizatu ziren.

Emaitzak: Ikusgarriak izan ziren. Baina kostua ere itzela izan zen:

- Stalinen gobernuaren arazo nagusienetako bat nekazaritza ingurua zen; izan ere, inguru horrek NEPren garaian izandako aldaketa jabetza pribatua ezabatzeko ideia komunisten aurkakoa zen. Aldiz, nekazari batzuk, kulakak, aberastu egin ziren eta arriskutsuak izan zitezkeen, ahalmen ekonomiko gero eta handiagoa baitzuten. Zenbait neurri hartu ziren kolektibizazio prozesua abiatzeko, eta horrek nekazaritzako jabeekiko gerra irekia sortu zuen. Baina Stalinek jabetza pribatua ezabatzeko erabaki sendoa hartu eta gauzatu egin ziren.

- Kolektibizazioek kulakak amaiera ekarri zuten, baina kostu itzelean:
  - milaka nekazari hil ziren, gizatasunik gabeko erbesteratze masiboetan;
  - abeltzaintzako produktzioa lur jota geratu zen luzaro eta nekazaritzak prestakuntzarik oneneko langileak galdu zituen.
- Prozesu horretarako lorpen bakarra zerealen produktzioaren mekanizazioa izan zen.

Bosturteko II. Plana: (1933-1937) Honek ere balantze ikusgarria izan zuen. Industriako ekoizpena bikoiztu eta nekazaritzakoak %50eko hazkundea izan zuen. Biztanleen bizimoduak hobekuntza nabaria izan zuen, eta sobietar gizartea, itxuraz, egonkortasunerako bidean zegoen.

Bosturteko III. Plana: (1937-1942) II. Mundu Gerra hasita zegoen eta aurreikusitako plana aldatu behar izan zuten, gerraren beharrezaneri aurre egiteko.



## Stalinen diktadura

Egoera: Stalinek diktadura ezarri zuen, metodo basatiak erabiliz eta oposizio osoa ezabatuz, baita Alderdi Komunistaren barruko oposizioa ere.

Kolektibizazioaren ondoriozko gatazkak eta borroka eta sakrifizio ugari gainditu ondoren, SESB lasai-lasai zegoen; oposizio politikoa ezabatuta zegoen eta bazirudien erregimenak biztanlerik gehienek babesa zeukala. Baina Alderdiaren barruan krisi sakona sortu zen.

*Garbiketak:* 1933tik aurrera, garbiketak egin ziren alderdiaren barruan, diktadorea itsututa baitzegoen, aurkako etengabeko konspirazioak zirela-eta. Nahitaez ezabatu beharreko konplota ikusten zuen kritika guztietan. Stalinen errepresioa hiru aldi nagusitan gauzatu zen. Lehenengo bietan, 1933 eta 1934 bitartean, alderdia bere alde garbituta utzi zuen, kide asko kanporaturik. Hirugarren aldia izan zen adierazgarriena, 1936 eta 1938 bitartean, Moskuko prozesuetan, antzinako buruzagi boltxebikerik gehienak eta alderdiko beste buruzagi asko nahiz armadako ofizial ugari epaitu eta exekutatu egin ziren, krimenik zentzugabekoenak leporatuta.

*Ondorioak:* Errepresio neurri horien eraginez

- Erabat Stalinen borondatearen menpean zegoen Alderdi Komunista berria sortu zen.
- 1939an, Sobietar agintea finkatuta zegoen eta Alderdi Komunistak SESBko bizitzaren alderdi guztiak kontrolatzen zituen.
- Jabetza pribatua abolitu eta marxismoaren interpretazio sobietarra gauzatu zen.
- Herria industrializaturik zegoen, eta hiriek hazkunde nabaria izan zuten.
- SESB munduko potentzia ekonomikoa zen eta, zirudienez, adostasun handia zegoen Stalinen erregimenaren barruan.

